

Jorge Zabalza

“Uruguaiako ezkerak, tupamarook bereziki, euskaldunen borroka bidezko zat jo izan dugu betidanik, nazio askapenerako borroka delako; azken batean, euskal herritarrek aurre egiten diote XIX. mendean Artigas jeneralak hemen izan zuen etsai berari, inperio espainiarrari”, diosku Jorge Zabalza tupamaroak. Hain zuzen, era horretako pasarteak izateagatik polemika handia piztu du Uruguain Zabalzaren biografiak.

Argazkia eta testua:

ÁLVARO HILARIO
PÉREZ DE SAN ROMÁN



Tupamaroen betaurreko gorri-beltz iraultzaileetatik

“KEZKATUTA NAGO, eskumak eta Frente Amplioko –Gobernuan dagoen koalizio aurre-rakoia– hainbatek ukatu egiten dituztelako ETArekin izan genituen harremanak, liburuan azaltzen ditudanak. Lehenengok terroristatzat jotzen dituzte bai gu eta bai ETA; besteek diote gauza horiek ez nituela kontatu behar”, adierazi du Jorge Zabalzak, bere biografiaren harira. Nazio Askapen Mugimendu-Tupamaroek (MLN-T) Euskal Herriarekin zuen lotura liburuaren lehenengo atalean ageri da: 1985ean, Uruguai jasandako 13 urteko diktadura latza amaitu zen eta matxinadaren helburuari eutsiz, kalera bueltatu ziren tupamaroak. “ETAk egindakoak behin baino gehiagotan ez genituela ulertzen esan arren eta haiekin bat ez gentozela egia bada ere, talde iraultzaileen arteko elkartasuna ezinbestekoa genuen; Peruko

Tupac Amaru Mugimendu Iraultzailearekin (MRTA) edota sandinistekin, esaterako, solidario izan behar genuen, nahiz eta guztian bat ez etorri. Espetxetik irten berriak ginen arren, burges demokraziaren mugetan murgiltzen ginen arren, elkartasunaren oinarritzko printzipioa ezin genuela galdu argi eta garbi genuen. ETAk berdin egin zuen, urte batzuk lehenago, CX 44 Panamericana gure irratia zorrak kitatzeko 50.000 dolar eman zizkiguneari”. Bere esanetan, eskuindarrentzat ulertezina da hau: “Elkartasuna erosi zigitela esaten dute; hori, beraiek inperioarekin duten tratua izan liteke; ez gurea, ez iraultzaileon artean egon ohi dena”.

Hala, 1994ko abuztuaren 24an, MLN-T mugimenduak deituta, jende andana bildu zen Montevideoko Filtro ospitaleko kanpoaldean,

gose greban zeuden hiru euskaldunei elkartasuna adierazteko eta Espainiara ez zitzatela eramane eskatzeko. Polizia urguaiarrak erruki gabe erreprimitu zituen manifestariak: Roberto Facal eta Fernando Morroni gazteek hilda bukatu zuten. Gobernuak gertatutakoa tupamaroei leporatu zien, errepresioa 11 egun lehenago izandako bileran erabakita bazegoen ere. Rafael Vera Espainiako Estatu idazkariak ere parte hartu zuen bilera hartan.

“Presondegitik irtendakoan, matxinada defendatzen segitu genuen; ideiak lantzeari eman genion, gizarte borrokara lotuta, auzoetan lan eginez, lurraldetasunari eutsiz, beste diktadura bat etorriko balitz prest egoteko. Horretan geundela, 1994ko manifestaldia gertatu zen, Uruguain ohikoa ez zena. Harrezkerro, indarkeriaren inguruko eztabaidak izan genituen, eta urte hartako hauteskundeetan eskuina garaile atera zenean, Frente Amplioren porrota guregatik, tupamaroengatik, zela esan zuten askok”, dio Zabalzak. Baina bere hitzetan, “gurea ez zen politika, gureak ez ziren erabakiak, gure printzipioen kontra ziren erabakiak hartzera behartu gintuzten Frente Amplioko agintariak. Une haietan, gutariko batzuek bakardadea zer den jakin genuen. Kaleak eta fabrikak ez ziren gehiago politika egiteko gune aproposa, parlamentua baizik; amaieraren hasiera izan zen hura. Botoak lortzen ahalegindu ahala, Frentekoek uko egin zieten tupamaro historikoen printzipioei, orain MLN eta MPP dauden lekura, gobernu eskuindar batera heltzeko”.


Gaur egungo Uruguain, biztanleriaren %43 pobrezian bizi da. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantza Ministerioak 2005. urtean emandako datuen arabera, 2.176 enpresa dira lurra- ren %55aren, aziendaren %40aren eta ardi- aziendaren %37aren jabe. Haur heriotza-tasak beherantz egin duen arren, jaiotzen diren erdia pobrezian jaiotzen dira; horietatik %25 errak- tiko eta elikatu gabe. Zabalza kexu mintzo zaigu: “Egun, indarkeriarik gabe eta gobernu aurrerakoiarekin, soldatak 1970ekoak baino txikiagoak dira. Frente Amplioko politikak haustura soziala areagotzen duela onartu berri du Garganok –Gobernuko Atzerri Aferetako lehenengo ministroak–. Gobernutik esaten dute sozialismoa erdiesteko kapitalismoa garatu behar dela; Pepe Mujica senatariak [hau ere, Zabalza eta beste agintari tupamaro guztiak bezala, militarren gerra-bahitua] esaten due- nez, kapitalismo serio bat, bihozbera eta esku- zabala, Suedia bailitzan”.

Federico Leichtek Zabalzari buruz idatzita- ko biografiako epilogoan ditugu tupamaroaren honako lerro hauek: “Epopeiako garaiekin alderatuz, errealtatea erabat aldatu da. Horrek ez du esan nahi munduari eta bizitzari begira- tzeke betaurrekoak aldatu behar ditugunik. Ez

Gizon *tamberoa*

Esnegintza izan zen XIX. mendearen amaieran Ameriketara joandako euskaldun askoren ogibi- dea. Esnetako abeletxeek *tambo* izena dute. Han- dik Jorge Zabalza (Minas, 1943) tupamaro histori- koaren ezizena: *Tambero*. Aita, Pedro Zabalza, senatari kontserbadorea zen arren, Jorge eta bere anaia Ricardo goiz sartu ziren Raúl Sendic-ek sor- tutako Uruguako Nazio Askapen Mugimendu- Tupamaroetan. 1969an –Jorge Montevideoko Punta Carretas presondegian zela–, tupamaroek Pando hiria hartu zutenean, ihesean zebilen Ricar- do atzeman eta bertan hil zuen poliziak. Urtebete beranduago, 111 tupamarok sekula izan den ihe- saldirik arrakastatsuen burutu zuten, Zabalza eta Sendic tartean zirela. Ez zen baina handik alde egingo zuen azken aldia: 1972an, Jorgek zuzendu- tako planari jarraiki, 15 izan ziren espetxe beretik alde egin zuten tupamaroak. Halere, errepresio gordina zela medio, hurrengo hilabeteetan 2.800 tupamaro atxilotu zituzten.

Jorge Zabalza 1972ko ekainean harrapatu zuten; 11 urte emango zituen kuartelez kuartel, bi metro koadroko kioletan. 1985ean, diktadura amaituta, tupamaroak zeregin politikoetara buelta- tu ziren, matxinada helburuak ahaztu gabe. Zabalza tupamaroen Mate Amargo aldizkariaren zuzendaria izan zen. 1994ko hauteskundeetan, Montevideo Barrutiko Batzorderako zinegotzi hautatu zuten. Ezaguna da Frente Amplio (FA) koalizioak bultzatu zituen pribatizazioen kontrako bere jarrera. Beste agintari tupama- roekin bat ez zetorrelako laga zuen Mugimendua. 2007ko urrian, Federico Leicht kazetariak kalera- tu zuen Zabalzaren bio- grafia, *Cero a la izquier- da*, eta ez da Frente Amplioko tupamaroen gogoko izan.



da zertan kapitalismoa zein burges demokrazia arrosaz ikusi. Tupamaroen betiko betaurreko gorri-beltzek balio dute”. Etorkizun hurbilera begiratuz, baina, aldaketarik ez du ikusten: “Jendeak aldaketa Gobernuak ekartzea espero du; datorren urteko hauteskundeetan Frente Amplio garaile aterako da, ziur asko. Egoera larria izan arren, ilusioa du jendeak. Zaila da, oraindik ere, ibiliak ez diren bideak ibiltzea. Hauteskundeak alboratu ditugu eta ezin dugu erabili jendeak ulertzen ez duen ekintza zuzena. Dena dela, gertatzen ari dena ezbaian jarri dezakegu: kapitalismoa, demokrazia... Nahiz eta bidea argi ez egon, herri boterea, okupazio- ak, herri irratia, botere gune txikiak planteatu ditzakegu”. ■